


» hizpideak

Borrokarako deia egingo du ELAK XI. Kongresuan

«Borroka da gatazkei heldu eta Euskal Herriko langileen interesak babesteko tresna bakarra». Horrela adierazi zuen atzo ELAko idazkari nagusi Jose Elorrietak, sindikatuak azaroaren amaieran egingo duen XI. Kongresua aurkezterakoan. Borroka tresna gisa, «ez etsipena, ezta konformismoa ere». Prekaritatea amaitzeari eta autodeterminazio eskubidea errespetatzeari premiajio deritzo ELAK, eta autodeterminazioa onartzen dutenekin aurrera jo behar dela uste du. Egoera politiko, sozial eta ekonomikoa aldarazteko xedearekin, egungo estratagiari eutsiko dio sindikatuak.



NAVAL ontziolako langileak, lantegiaren inguruetan ezarri zituzten barrikaden artean babestuta. LUIS MIRESAITZO/ARGAZK. PRES

Navaleko langileak ontziolaren defentsan

Naval ontziola pribatizatzeke planaren aurka —lantegia ixtea esan nahiko luke— antolaturiko geldialdi eta protesta egunetan, hemeretzi langile zauritu dira, eta batek, gainera, begia galtzeko arriskua du. Ertzaintzaren neurrigabeko oldarraldiak gogora ekarri zituen 80ko hamarkadan Deustuko zubiaren inguruetan izaniko gertaerak. Salaketa eguna ere izan zen; bereziki Espainiako Gobernuako presidente Jose Luis Rodríguez Zapatero izan zen salaketa gehienengoa; igandean hitz emandakoa jan, eta «Naval salbatzeko konpromisoa» hauteskunde promesa huts izan zela leporatu diote.

Donostiako Zinemaldiaren 52. ekitaldia

Woody Allen zuzendariaren *Melinda & Melinda* filmeko protagonistak iritsi, eta zinema giroz betetzen hasi zen atzo Donostia. Gaur abiatuko da 52. Zinemaldia; hain zuzen ere, film horrek emango dio hasiera, eta, besteak beste, Woody Alleni Donostia Saria emango diote. Egun bat gutxiago izango du aurten Zinemaldiak, eta hamasei film aurkeztu dira Urrezko Maskorraren lehian. Atzera begirakoak, beste zinemaldi batzuetako film sarituak, sail bereziak, Zabaltegi, Zuzendari Berriak eta ohiko beste sailak... filmez gozatzeko aukera izango da irailaren 25a arte.

» montxo



» zorroztarri

Jose Luis**MADDALEN IRIARTE**

Ez dakit seguru Bordele inguruan ala Paue inguruan izan zen. Niri, bera ikustera joaten ginen gutzietan bidea luzea egiten zitzaidan, baina artean niri Donostiatik irten eta Erreterria artekoa ere luzea egiten zitzaidan. Astiro joango ginen, gainera, guk *ochocientoscuenta* ttar-ttar bat genuen eta. Ez zen auto txarra baina *mil quinientos*-ak eta antzekoak nahikoa orokortuak zeuden.

Bide luzea, autoa ere halakoa; fronte-

ran ni beti arnasarik gabe uzten ninduen eta nauen polizia. Isil-isilik pasatu izan dut nik beti frontera... Baina zubia pasatu orduko, orduan halako askatasun aire bat erakusten zuen ikurrina. Egia esan, orduan oso nabarmena zen Espainia eta Frantziako estatuen arteko diferentzia. Geroztik konturatu gara itxura baino askoz gehiago ez zela hura ere. Eta handik Frantzia aldera; izan ere, Euskal Herrian bertan egona zen, Belgikan ere bai, baina, esan bezala, kontatu behar dizuedana, Bordele edo Paueko inguruetan jazo zen.

Familiabakarreko etxe sorta bat zen, bere lorategitxo eta guzti.

Iritsi orduko, desagertu egin zirengure gurasoak, eta bazkaltzeko baino ez genituen ikusi. Guk plastikozko indio eta

bakero batzuekin jolasten eman genuen eguna.

Ez dakit zer ordu izango zen, baina iluna ere bazen ordurako, eta itzultzeko garaia iritsi zitzaigun.

Halako egun arraroa edo berezia lehenago ere pasatua genuenez, nire amari galdetu nion ea zergatik joaten ginen beti urrutira bera ikustera, beraiek ikustera. Ea zer zela-eta bizi ziren urruti eta beti etxe ezberdinean. Amari galdetu nion, aitak azkeneko segundoa ere aprobetxatzen baitzuen berarekin isildu gabe hitz egiteko.

Beraz, amak esan zidan ingeniari argi eta goi mailakoa zela, euskararekiko bere ardurak hizkuntza sakontzera bultzatu eta hizkuntzalari egin zela, erbesterratu egin zela kartzelan sar ez zezaten.

Nire amak gauza gehiago esaten jarraitu zuen berari buruz, Joneri buruz... baina ni ordurako, *krokodilo*-dun niki zuria soinean zeraman gizonari begira nengoen.

Horrela jakin nuen nik nor zen Jose Luis, lehendik ere ezagutzen nuen gizon despatitu xamarra, zergatik ez nekiela mirespen bereziz sentitutako gizona.

Omenaldia egin diote egunotan Donostian, merezitakoa, beste hutsegite eta hutsune batzuk gaindituko ez dituen baina beharrezkoa. Geroztik, badakit nor den Txillardegia, baina niri irudi hura etorri zait burura egunotan, kontzientzia hartu nuenekoa. Begirunez! A! Eta pelikula hartatik maileguz hartuta: Jo ezak berriro (piano famatu hori), Jose Luis!